

**IKASTOLETAN KOTIZATU GABEKO ZERBITZUAK.....ADI!!!**

Uztailaren 13an BOEn ateratako Dekretuak kotizatu gabeko zerbitzu batzuk gizarte segurantzaren sartzeko bidea zabaldu zuen.

Norentzat: euskara irakasten profesio-nalki aritu zirenentzat, bai jubilatu badira baita lanean jarraitzen badute ere.

Zer onartuko zaien: 1978ko abendua-ren 29ra arte egindako zerbitzuak kotizatutzat emango dira, baldin eta garai hartan ez bazuten kotizatorik.

Zertarako: erretirorako zein beste pentsiotarako (alarguntzarena, heriotza-rena, balioezintasunarena etab.).

Aurreikusitako prozedura: EAEko eta Nafarroako Hezkuntza Sailek interesatuei egiaztagiriak emango dizkiete, eta egiaztagiri horiek Gizarte Segurantzaren aurkeztu beharko dira.

Nortzuk: euskararen irakaskuntzan onartu gabeko zerbitzuak dituzten guztiok, pasa den ikasturteko gestioek ez zuten honetarako balio.

Orain arte Hezkuntza Sailek ezer gutxi egin dute, nahiz eta beraiek izan prozesu hau arautu eta bideratu behar dutenak. Oso grabea da hutsegite hau, jokoan dagoena asko baita. Pertsona askoren lana eta borroka dago honen guztiaren atzean, Administra-zioek bermatu behar dute informazio argia interesatu guztiei ailegatzen zaiela.

Hona hemen prozedurari buruz dugun informazioa:

Nola: Hezkuntza Sailara (EAEkora zein Nafarrokora) joan behar da, eta gero Gizarte Segurantzara.

Hezkuntza Sailean egitekoa:

- Zerbitzuen egiaztagiria eskatu (eskabide orria gure web gunean dago). Orijinala eta 2 kopia.
- Egindako zerbitzuen frogak aurkeztu: 2 lekukoen adierazpenak, edo ikaste-txearen agiria, edo argitalpenak... (Fotokopia bana eraman, badaezpada.)
- Ez ahaztu NAN eta Gizarte Segurantzaren kartila, orijinalak eta foto-kopiak.

Gizarte Segurantzaren egitekoa:

- Zerbitzuen onarpena eskatu (eska-bide orria gure web gunean dago). Orijinala eta fotokopia.
- Hezkuntza Sailak emandako egiazta-giria, edo, presaka bazabiltza, Hezkuntza Sailean egindako eskaria-ren kopia.

Noiz: Atera behar dituzten dekretuek markatuko dituzte epeak, hala ere:

- Zerbitzuen onarpenak 2007ko urtarrilaren 1etik eragina izateko, azaroaren 15a baino lehen joan behar da Gizarte Segurantzara, beraz, prozesu osoa martxan jarri behar da lehenbailehen jubilatuta edo jubilatzeaz egotekotan.
- Jubilatzeko edo pentsioa kobratzeko presarik ez badago, lehenbailehen prestatu behar dira paperak (frogak bildu,...) baina ez da hain premiazkoa Hezkuntza Sailetara eramatea, kontuan hartu ez dutela oraindik ezer ofiziala argitaratu.

Argibide gehiago nahi izanez gero, egoitzetara deitu edo gure web orria www.stee-eilas.org begiratu

ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C	01001 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)	48003 Bilbo	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 27 00 48	nafarroa@stee-eilas.org